

On Antonio Arzác-en oroitza

Negarrez iskribatuak dijoaz errenkada abek, eta biotza atzekabez zapalduta dagoen garayan,

Illda gizon leñargia, euskaldun danen maisua, Ama Euskera seme zintzoa, gure mendi eta baserritako kantari gozoa, baiñan derizkiot, eztala ill Jaungoikoagan-ko sinisme, eta zeruko beste bertuten kobla-karia. Orain derizkiot, bizi dala leku egokienean, negarrik ez dan leku zoragarrian.

Donostiarra zan, donostiar egiazkoa, biotz eder baten jabea; ta malko samitsu askoren legortzalea, San Bizenteko pontian batayatua; eliz ontako Meza nagusiyetan beti ikusten zan, seme leyala amaren kabi maitatian bezela.

Bai Antonio; goiz-goizero, apaiza naizen aldetik, Jaungoiko maitearen aurrean arkitsen naizean, gogoratuko naiz autzaz oroitze arretaz-kuan, ta pozik mintsatuko ditut malkoak eragiten dizkiran otoitzak, dakitalako gozagarriak dirala gure albotik joan diran maitearentzat, eta Jaunak ontzat artuta, leku autatuan gordetzen ditualako.

RAMÓN INZAGARAY.

On Antonio-ri oroimena

Aingeruak Zerutik
diyote, bai, deitu,
eta berak atzezin
aundiyaz du aitu;
etzuben nai gurekin
munduban gelditu,
naigabes beterikan,
danak utzi gaitu.

ROSARIO ARTOLA.
